
ARTELEKU
URT/25/ENE
URT/29/ENE
TAILERRA / TALLER
DANIEL CANOGAR
HONDAKINAK
RESIDUOS
Irudia | Imagen: Cortesía Galería Max Estrella. Daniel Canogar VEGAP.

URT/25 TAILERRA
URT/29 DANIEL CANOGAR

# HONDAKINAK

Artista beti izan da historiaren birziklatzaile handia, iraganeko hondakinetan arakatu eta orainari zentzua ematen diona. XX. mendean zehar, baztertutakoa arte-lanaren barruan sartzen hasi zen. Duchampen *readymade* ideiak zentzu artistiko berria eman zien baztertutako objektuei, eta Pop Art mugimenduak, berriz, erabili eta botatzeko produktuen ekoizpen masiboa jo zuen begiz. Beraz, zaila da arte garaikidea ulertzea hondakinak sortzen duen lilura aintzat hartu gabe. Ingurumenaren gaineko kezka agerian den garai honetan, kontsumoari lotutako gizartearen gorotz-paisaien berri ematen duten argazkilariak aurkitzen ditugu, eta baita beren proiektuak burutzeko material bila zabortegietan eta txatarregietan aritzen diren artistak ere. Lan horietan guztietan ikusten dugu gizarte bat bere zaborren bitartez ezagutzen dela.

*Hondakinak* tailerrak parte hartzaile guztiak gonbidatzen ditu arkeologo lanetan aritzera zabortegi, txatartegi, desguaze eta bertan behera utzitako orubeetan, toki horietan hainbat hondakin aurki baitaitezke. Halaber, tailerrean foro egoki bat antolatuko da hondakin horiek testuinguruan berriro kokatzeko eta artearen bidez zentzu berri bat emateko. Gehiegikeriarekin, memoriarekin, kontsumoaren gizartearekin eta planetaren baliabide naturalen espoliazioarekin lotutako gaiak aztertuko dira saioetan egindako ariketen bitartez. Aldi berean, erabili eta botatzeko kultura ordeztu dezaketen beste gizarte eredu batzuk ikertuko dira. Tailerrean egindako ariketen ondorioz amaierako proiektu bat prestatuko da, eta azkeneko egunean aurkeztuko zaie parte hartzaileei, lan horren bitartez laguntza eman nahi baitzaie beren lan artistikoa erabiliz bizitzea tokatu zaigun errealitatearen aurrean jarrera hartzeko.

## IZEN-EMATEA

Bidali zure datu pertsonalak, CVa eta motibazio eskutitza → arteleku@gipuzkoa.net helbidera.
Izena emateko epea: urtarrilak 13.

Tailerraren ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00.
Parte hartzaileak: 15 gehienez.

25/ENE TALLER
29/ENE DANIEL CANOGAR

# RESIDUOS

El artista siempre ha sido un gran reciclador de la historia, escarbando entre los escombros del pasado para dar sentido a su presente. A lo largo del siglo XX, lo descartado comienza a incorporarse literalmente en la obra de arte. Desde el *readymade* de Duchamp, que da un nuevo sentido artístico a objetos abandonados, hasta el Pop Art, que fija su mirada en la producción masiva de productos de usar y tirar, es difícil entender el arte contemporáneo sin esta fascinación por el residuo. En un presente preocupado por el medioambiente, encontramos diversos fotógrafos que documentan el paisaje excremental de la sociedad del consumo, o diversos artistas que encuentran en basureros y chatarrerías material para construir sus proyectos. En todos estos trabajos descubrimos que a una sociedad se la conoce por sus basuras.

El taller *Residuos* invita a sus participantes a convertirse en arqueólogos de basureros, chatarrerías, desguaces y solares abandonados en los que se puede encontrar deshechos diversos. En un segundo término, el taller engendrará un foro adecuado para recontextualizar estos residuos y darles un nuevo sentido a través del arte. Temas relacionados con el exceso, la memoria, la sociedad del consumo y la expoliación de los recursos naturales del planeta serán abordados a través de ejercicios realizados a lo largo del taller. También se investigará la búsqueda de modelos sociales alternativos a la cultura de usar y tirar. Los ejercicios realizados a lo largo del taller desembocarán en un proyecto final, presentado el último día del taller, con el que se pretende ayudar a los participantes a posicionarse a través de su trabajo artístico ante la realidad que nos ha tocado vivir.

## INSCRIPCIÓN

Envía tus datos personales, CV y una carta de motivación a → arteleku@gipuzkoa.net
Plazo de inscripción: hasta el 13 de enero.

Horario del taller: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00.
Participantes: máximo 15.

## INFORMAZIO OROKORRA

**Arteleku - Gipuzkoako Foru Aldundia**, arte garaikide zentro bat da, jardute artistiko kultural esperimentalak bultzatzen dituena. Proiekzioa izango duten eta gure ingurunean era sozial, publiko eta komunitarioan errotu diren proposamen mota oro sortu eta sustatzeko xedez, artea bultzatzeko leku bat da.

→ www.arteleku.net en zentroak programatutako ekitaldien inguruko eta Artelekurekin elkarlanean aritzen diren proiektuek sortutako dokumentazioa dago eskuragarri.

## INFORMACIÓN GENERAL

**Arteleku - Diputación Foral de Gipuzkoa** es un centro de arte contemporáneo que impulsa prácticas artísticas culturales experimentales. Un lugar de apoyo al arte desde la perspectiva de generar e impulsar toda clase de propuestas que permitan una proyección externa, y, a su vez, se adscriban en un modo social, público y comunitario.

En → www.arteleku.net está accesible toda la información en torno a las actividades programadas por el centro, así como la documentación generada mediante la colaboración con diferentes proyectos.




Nola heldu | Cómo llegar

26 / Amara - Martutene → Txomin - Enea
A1 / Donostia - Hernani → Txomin - Enea

Renfe / Irun-Brinkola → Donostia - Loiola
EuskoTren / Topo → Donostia - Loiola

A8 / Salida 5 → Martutene - Loiola

Informazioa - administrazioa | Información - administración

Astelehenetik ostiralera | de lunes a viernes
Ordutegia | Horario: 8:00 - 19:00
T 00 34 943 453 662 | F 00 34 943 462 256
arteleku@gipuzkoa.net

Dokumentazio Zentroa | Centro de Documentación

Astelehenetik ostiralera | de lunes a viernes
Ordutegia | Horario: 10:00 - 14:00 / 15:00 - 19:00
T 00 34 943 444 667 | F 00 34 943 462 256
garrillaga@gipuzkoa.net

arteleku | Gipuzkoako Foru Aldundia | Diputación Foral de Gipuzkoa

Kristobaldegi, 14. Loiola. 20014 Donostia - San Sebastián
T 00 34 943 453 662 | F 00 34 943 462 256 | arteleku@gipuzkoa.net | www.arteleku.net